

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Arkitektoak egindako hirigintza-aholkularitzarako zerbitzua kontratatzeko lehiaketa, prozedura irekiaren eta ohikoaren bidez

1. Erakunde esleitzaila: Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla.
2. Lehiaketaren helburua: arkitektoaren hirigintza-aholkularitzarako zerbitzua.
3. Loteak:
 1. lotea: Gauzatzea Laguardian, Samaniegon, Navaridasen, Eskuernagan eta Lezan.
 2. lotea: Gauzatzea Lapuebla de Labarcán, Bilarren, Lantziegon, Kripanen eta lekoran.
 3. lotea: Gauzatzea Oyón-Oionen, Mañuetan, Moreda Araban eta Elciegon.
 4. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:
 - a) Izapidetzea: ohikoa.
 - b) Prozedura: irekia.
 - c) Esleitzeko era: lehiaketa.
 5. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua: gehienezko lizitazio oinarria 30,50 euro ordukoa izango da (hogeita hamar koma berrogeita hamar euro), loteko, BEZik gabe.
 6. Kontratuaren iraupena: urte bat; gehienez ere bost urtera arte luzatu ahal izango da. Inolaz ere kontratuak bost urte baino gehiagoko iraupena izango du.
 7. Kontratatzailearen berariazko betebeharrak: ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala; betebeharrak horiek baldintza ekonomiko-administratiboaren agiriaren jasota dauden bezala egiaztatuko dira.
 8. Espedientea aztertzea eta dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:
 - a) Erakundea: Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla.
 - b) Helbidea: Gasteiz errepidea, 2.
 - c) Herria eta posta kodea: Laguardia, 01300
 - d) Telefonoa: 945600252.
 - e) Faxe: 945621065.
 - f) Orduetgia: astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik arratsaldeko 14:30era.
 - g) Agiriak eta argibideak jasotzeko azken eguna: proposamenak aurkezteko epea bukatzen den eguna.
 9. Eskaintzak aurkeztea:
 - a) Epea: hamabost egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna izango balitz, hurrengo egun baliogunera arte luzatuko litzateke.
 - b) Aurkeztu beharrekoak: Ikus baldintza-agiria.

c) Non aurkeztu:

Erakundea: Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla

Helbidea: Gasteiz errepidea, 2

Herria: 01300 Laguardia (Araba)

Orduategia: astelehenetik ostiralera, 9etatik 14etara.

10. Eskaintzarako eredia: proposamenek baldintza administratiboen agirian adierazitako eredura egokitu beharko dute, eta bertan zehazten den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira.

11. Proposamenak irekitzea: Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren iragarki-taulan adierazitako da zein izango den egun hori, eskaintzak aurkezteko azken egunean.

12. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

13. Agiriak ondorengo web orrian eskuratu daitezke: www.cuadrillariojaalavesa.com.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Guardia, 2017ko urtarrilaren 19a

Lehendakaria

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA